

Musika

Kulturaren Euskal Planaren Musikaren taldearen
bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

| | |
|--|-----------|
| 1. AMIA AZTERKETA | 3 |
| INDARGUNEAK | 3 |
| AUKERAK | 5 |
| AHULEZIAK | 7 |
| MEHATXUAK | 11 |
| 2. JARDUERA-ILDOAK | 14 |
| 3. LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK | 22 |

1. AMIA AZTERKETA

INDARGUNEAK

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Musikaren Euskal Artxiboa (ERESBIL, Erreterian), erreferentziazko musika-informazioa lortzeaz arduratzen den dokumentazio-zentro gisa; sarrera erabat publikoa da eta kalitate oso ona du.
- ◆ Erabat prestatutako koru-zuzendariak (titulurik eduki ez arren). Nazioarteko sariak Euskal Herriko hainbat koruri.
- ◆ Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia sortzea eta musikaren irakaskuntzaren kalitate-mailetan duen eragina.

Sortzea

- ◆ Gazte musikarien eta egungo konpositoreen maila teknikoa igotzea
- ◆ Kalitatezko eta izen oneko musika klasikoko euskal solistak, karrera herrialdetik kanpo egin dutenak eta agertokiak uzteko zorian daudenak; eta musika-jarduera horri jarraipena ematen dioten eta estatuko eta nazioarteko proiektzioa duten gazte solistak
- ◆ Eusko Jaurlaritzaren laguntza egile-eskubideak ordaintzeko

Produktzioa

- ◆ Behar adina grabazio-estudio, teknikari eta kudeaketako langile herri-musikaren arloan, profil autodidakta eta oso funtzionala dutenak, baina trebakuntzan eta teknologian gehiago inbertitzeko beharra dago.

Banaketa eta emanaldia

- ◆ Bi orkestra sinfoniko profesional egonkor: Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS) eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (EOS)
- ◆ Lehiaketa garrantzitsuak hainbat arlotan (kantua, koruak, etab.), komunikabideen presentzia handiarekin eta mundu osoko hedapenarekin. Horrez gain, jaialdi garrantzitsuak (Jazz, Donostiako Musika Hamabostaldia, Errenteriako Musikastea, Bilboko Musika garaikidea)
- ◆ Opera-arloko elkarte pribatuak (ABAO, Bilbon) eta kontzertuen elkarte pribatuak (nabarmenena Bilboko Elkarte Filarmonikoa da) kalitatezko opera-produkzioak eta nazioartean goi-mailako kalitatea duten ganbera-kontzertuak eskaintzen dituzte hurrenez hurren, arrakasta-maila handiarekin.
- ◆ EAEn musika-eskaintza aberatsa dago, besteak beste, programazio-erakunde berriak eratzeari esker, hala nola Kursaal Fundazioa edo Araba Kulturala.
- ◆ Emanaldietarako lokal txiki ugari, banaketa irregularra eta planifikatu gabea dutenak, baina publiko leialarekin eta han egiten diren jardueri jarraipena ematen diote. Lokal horiek oinarrizko musika-jardueri laguntzen die eta musikaren sektore profesionala sendotzen dute.
- ◆ Gasteizko "Jesus Guridi" Musika Kontserbatorioko musika garaikidearen zikloak eta musika elektroakustikoaren jardunaldiak, orain dela 6 eta 9 urtetatik hurrenez hurren.
- ◆ Goi-mailako egitura artistikoak, modu bitxian, pribatuak. Erkidegotik kanpo gehien eskatzen diren musika-baliabideetan eratuta daude (Orfeoi Donostiarra, Bilboko Koru Elkartea...)

Kontsumo kulturala

- ◆ Herritarren harrera oso ona duten zuzeneko musika-jarduerak, parte-hartze kolektiboaren maila handiarekin jaialdietan, koru-jardueretan, talde jakinen kontzertuetan, dantzan, etab.
- ◆ Herritarren parte-hartze eta musika-kontsumo handia, bai bertako produkzioari, bai nazioartekoari dagokionez, nagusiki, interpreteetan oinarrituta.

Azpiratu beharreko beste alderdi batzuk

- ◆ Gotzaindegiek eta aldundiek ahalegin handia egin dute XVII. eta XVIII. mendeko euskal organo azpiragarrienak berritzeko. Horiek publikoarentzat erakargarriak izan daitezke.
- ◆ Musika-jardueran hizkuntza propioa garatzea elementu berezi eta bereizle gisa

AUKERAK

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Errepertorio "gazte" eta "folklorikoan" aritzen diren musikarientzako trebakuntzaren gero eta eskaera handiagoa, eta musikari horien pixkanakako legitimazioa errepertorio klasikokoekin batera
- ◆ Musika-estilo bakarrean oinarrituta ez dauden musikariak prestatzen eta haien musika-jarduera garatzeko erabiltzen dituzten errepertorioak egungo gizartearen eskaeretara egokitzen uzten ari da LOGSEren ezarpena eta musika-eskolen garapena.
- ◆ Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia (Musikene) sortzea, hura pixkanaka finkatzea eta proiektatzea urrezko aukera izan daiteke musika-irakaskuntzei buruzko hausnarketa orokorrerako, profesionalak fenomenoaren esparru guztietan prestatzeko joera izan behar baitute irakaskuntza horiek.

Sorkuntza

- ◆ Errepertorio gaztea garatzeko aukera handiekin sortzen ari den sektorea da (eta nolabaiteko eskaera dauka) gazte musikarientzat, bai autodidaktentzat, bai trebakuntza instituzionalizatua jasotzen dutenentzat.
- ◆ Azpiegitura aktiboak, administrazioen diru-laguntzak jasotzen dituztenak, eta gure egile eta konpositoreen sortzea sustatuko dutenak dagozkien enkarguekin.
- ◆ Ballabide profesional eta egonkorrak egotea Autonomia Erkidegoan, aurrekontu publikoekin mantenduak, horien bidez gaur egungo musikaren sortzea eta hedatzearekin konpromiso handiagoa lortzeko, musika horren adierazpenak ez baitu emaitza ekonomiko zorrotzik eskatzen.

Produkzioa

- ◆ Herrialdearen tamainak ekoizpenak orokortzen eta hedatzen laguntzen du

Banaketa eta emanaldia

- ◆ Antzerki-sare ona, nagusiki, orain dela gutxi sortutakoak edo birmoldatutakoak, kalitate onekoak, finantzazio publikoarekin eta publiko masiboari zuzenduak.
- ◆ Herrialdearen tamainak eta musika-jarduerak garatzen diren hiriguneen arteko hurbiltasunak hurbiltze handiagoa eta ekitaldien antolamenduan beharrezko koordinazioa eta truke handiagoa ahalbidetu behar luke.

Kontsumo kulturala

- ◆ Bertako komunitateen barruan hainbat koruk duten funtzio gizarteratzailea; horietako gehienak ez dira profesionalak (Orfeoi Donostiarra edo Bilboko Koru Elkarteaz gain, tamaina txikiagoko koru ugari)

- ◆ Opera-publikoaren gorakada, EAErekin muga egiten duten lurraldeetako pertsonak barne; gazteek interes handiagoa dute ikus-elementuen eta saioak egiten diren ingurune exotikoaren ondorioz.

Azpimarratu beharreko beste alderdi batzuk

- ◆ Eresbil dokumentazio-zentroa Musikaren Museoarekin osa liteke, han gordetzen diren aleak ez baitira beti jatorrizkoak, batik bat, hiru dimentsioko objektuei dagokienez (instrumentuak, bereziki).
- ◆ Publikoak ez diren egitura jakin batzuk profesionalizatzea kudeaketa-arlo edo arlo artistiko guztietan edo batzuetan, horrek musika-baliabideen sarea sor baitezake maila guztietan. Horretarako laguntza instituzionala eta/edo pribatua behar da

AHULEZIAK

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Zuzenean soinudunak ez diren musika-lanbideen (kudeaketa, ondarea, dibulgazioa, etab.) trebakuntzan, unibertsitate-sistemak beti bizkarra eman izan dio musikari, eta ez du hartu bere baitan musika-ikasketarik. Hala, musika-ikerketaren arloak egun duen egoera eskasa bultzatzen du.
- ◆ Orain arte, musikari profesionalen banaketa txarra kantitateari eta kalitateari dagokionez: piano-jole ugari, orkestrako musikari gutxiegi, organo-joleen uztea, musika-estilo bakarra ezagutzea, etab. Musika-hezkuntza irizpide irekiekin hausnartzeko edo berriz hausnartzeko beharra dago, profesionalak musikaren sektore eta arlo guztietan prestatzeko aukera emango duten irizpideekin.
- ◆ Hezkuntza-sistema orokorrak musika ez du ikusten kondizio oso errealistetan, eta haren presentzia minimoa da, eta kasu askotan, aurrez behar bezalako trebakuntza jaso ez duten pertsonen eskuetan.

- ◆ Lege-esparruak musika-eskolak finantzarioki zigortzen dituzten kontserbatorioen aurrean, eta gainera, ikasleei zuzendutako eskola-orduei eragiten die, horietako askok ez baitute musika-trebakuntza jasotzeko beste aukerarik.
- ◆ Titulazio profesionala duten orkestrako eta koruko zuzendari gutxi; horietako gehienak noizbehinka eta amateur gisa aritzen dira.
- ◆ Kontserbatorioko ikasle eta irakasleekin egiten diren kontzertuek instituzioen laguntza gutxi jasotzen dute.
- ◆ Musika-ikasketak ikasketa orokorrekin bateragarri egiteko zailtasuna
- ◆ Musikako espezialitate guztien profil linguistikoak profesional askok espezialitate horietara sartzeko duten aukera urritzen du.
- ◆ Kontserbatorioak irakaskuntza ertainetan sartzea
- ◆ Musika-erakundeen kudeaketan profesionaltasun falta eta haietan lan egiteko langile administratibo prestatuaren falta, normalean, bazkideek, zaleek edo trebakuntza espezifikorik ez duten boluntarioek kudeatzen baitituzte.

Sorkuntza

- ◆ Kalitatezko gazte musikari klasikoak, baina lana kanpoan edo irakaskuntzan egitera bultzatuta daude sektorearen saturazioa eta nazioartekotasunagatik. Gure mugetatik kanpo ezagunak diren gure konpositore gazteak ia ez dira ezagutzen muga horien barruan.
- ◆ Musika-konposizioaren zati handi bat publikoaren eta beste sektore artistiko batzuen (adibidez, arte plastikoak edo dantza) eskaeretatik urrunduta dago.
- ◆ Sortzea sustatzeko pizgarri falta

- ◆ Egileen soldata ordaintzeko erabiltzaile batzuek duten erresistentzia; egile-eskubideak

Produkzioa

- ◆ Musika ez da ikusten sektore produktibo gisa, eragile guztiak koordinatzeko beharra duen sektore gisa: sortzaileak, publikoa, interpreteak, bitartekoak eta enpresaburuak
- ◆ Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) nolabaiteko geldialdia dauka proiektu artistikoan eta antolamendu-proiektuan, eta horrek lortu behar dituen helburuetara iristeko jauzi kualitatiboa ematea eragozten dio.
- ◆ Bilbao Orkestra Sinfonikoak (BOS) ez du jasotzen bere kapital kultural, sozial eta historikoari dagokion laguntza Sail honen aldetik.
- ◆ EAEn ez dago musika klasikoa grabatzeko gai diren teknikari eta estudio egokirik.
- ◆ EAeko organo zaharrenak berritzea eta sustatzea ez da organo berrienak zaintzearen baliokidea
- ◆ Laguntza eskasa produkzioari, sortzeari eta ikerketari

Banaketa eta emanaldia

- ◆ Komunikabide orokorretan inhibizioa eta bat ez etortzeak kalitatezko musika-informazioan eta -kritikan. EITBk serio aztertu behar luke musika-eduki espezifikoko programazio bat irekitzeko aukera.
- ◆ Argitaletxe musikal gutxi; lehendik daudenek jarduera mugatua dute eta beste batzuekin batera egiten dute. Argitaletxe horientzako ez dago diru-laguntzarik, eta musikaren balio-katean funtsezkoak dira.
- ◆ Ganberako taldeen egonkortasun eza. Horiek kontzertu puntualak ematen dituzte, eta horregatik, plantilla aldakorrak dituzte eta kalitatea eta publikoaren leialtasuna aldakorrak dira.

- ◆ Gaurkotasuneko musika-aldizkari bat faltan botatzen da, publikoa bildu eta emanaldiak koordinatzeko baliabide gisa eta sektore guztien arteko komunikazio eta harremanetarako baliabide funtzional gisa.
- ◆ Konpositore gazteak ia ez dira programatzen.
- ◆ Ez dago kritika espezializatu eta fidagarririk.
- ◆ Programazioetan "arriku" falta
- ◆ Erabaki falta gure musika-produktuak esportatzeko
- ◆ Autonomia Erkidegoan gehien eskatzen diren eta kalitate frogatu onena duten musika-baliabideak taldeak dira, nagusiki, amateurrak, nahiz eta nolabaiteko profesionaltasuna duen egiturek eusten dituzten.
- ◆ Koru Federazioak eta musika-baliabideen antolatzaileak (batik bat koralak) oso kontserbadoreak dira. Beldurra diote gaur egungo hizkuntzari.

Kontsumo kulturala

- ◆ Kontsumo musikal handiak ez du lortzen behar adinako konpromiso-maila musika-bizitzaren sostengu materiala ziurtatzeko.
- ◆ Musika-kontsumorako zaletasuna sustatzeko baliabideak eta sistemak ez dira nahikoa (edo ez daude): aldizkariak, irrati- eta telebista-programak, prentsako iruzkinak...
- ◆ Irakaskuntza espezializatuan (kontserbatorioak, musika-eskolak) ia ez dago eta irakaskuntza ez-espezializatuan (eskolak, ikastetxeak, institutua, unibertsitatea) ez dago kontsumo musikalaren politikarik, hau da, ez dago musikari dagokion garrantzi kulturala emateko interesik eta programaziorik, eta aldi berean, ez dago musika entzuteko beneteko zaletasuna sortzeko interesik.

- ◆ Musikari produktu-izaera ematen zaio, musikako produktu horiek emango duten errendimendua kontuan hartu gabe. Garrantzi handiagoa eman behar zaio produktuaren salmentari, marketinari eta gero eta publiko zabalagora iristeko asmoari.

Azpinarratu beharreko beste alderdi batzuk

- ◆ Euskal musikako estamentu administratiboen, bitartekoen eta kudeatzaileen intrusismoa eta profesionaltasun falta. Horrek musikaren mundua desantolatzeko elementuetako bat osatzen du.

MEHATXUAK

Trebakuntza eta ikerketa

- ◆ Gazte musikari klasikoak nahitaez irakaskuntzan aritzeak hezkuntza-sistema asko kaltetzen du, haiek ez baitute behar adinako trebakuntza pedagogikorik.

Sorkuntza

- ◆ Pertsona ospetsuak eta erakundeak go스테ak eta iraganeko oroipen gutxi asko loriatsuek profesional batzuen birziklatzea eragozten dute.
- ◆ Landa-instrumentuak jotzen dituzten maila oso oneko gazte musikariek kokapen sozial zailari eta eta irteera profesional ia nuluari egin behar diote aurre, bai landa-eremuan, bai hirigunean.
- ◆ Gure musika-erakunde asko ez dira oso eskuzabalak gure egile eta interpreteekin.

Banaketa eta emanaldia

- ◆ Piratea eta Internet musika gaztearen arloko profesionalak finkatzeko aukerak hondatzen ari dira, gainerakoak baino hobeto egituratuta eta funtzionalki hobeto antolatuta dagoen arren.

- ◆ Behera doan musika-banden kopurua (horietako batzuk berreskuratzen ari diren arren, adibidez, Bilboko Udal Banda). Zailtasun handiak dituzte musika grabatuarekin eta herri-musikako egungo beste forma batzuekin lehiatzeko. Musikari zaletuek osatutako banden kudeaketa eta zuzendaritzaren profesionaltasunik gabe, zaila izango da haiek bizirautea estatu mailan hain lehiakorra den ingurunean.
- ◆ Musika klasikoko kontzertuen ikusizko eta ikuskizun-alderdiak ez berritzeak, egun publiko izan daitezkeen gehienak urruntzen ditu.

Kontsumo kulturala

- ◆ Epe ertainera arazoa publikoan belaunaldi ordezkapena egiteko, orkestretako publikoaren batez besteko adina altua baita. Beraz, premiazkoa da etorkizuneko publiko berriak profesionaltasunarekin erakartzea.
- ◆ Soziabilitate-formen bilakaerak musika-jarduera parte-hartzaileen (musika-koru amateurak) balio sinbolikoaren pixkanakako galtzea iragartzen uzten du. Horri soinu-kalitatearen gero eta eskakizun handiagoa gehitu behar zaio, gaur egun entzuleek munduko edozein lekutako eta kalitate hobea duten soinu-produktuak entzuten baitituzte.
- ◆ Garrantzia duten jarduera kritikoen faltak musikaren ondare-kontzepzioak gehiegi baloratzea dakar, eta kalitatezko elementuak baztertu eta kuantitatibori kualitatiboari baino garrantzi gehiago ematen zaio.
- ◆ Publiko berria eta leheneratua lortzeko baliabideak eta sistemak ez dira oso eraginkorrak.

Azpimarratu beharreko beste alderdi batzuk

- ◆ Musika-jarduera desagertzeko bidean dago etxe-ingurunean, eta mantentzen dena, haur-adinetan garatzen da, etorkizunean profesionalizatzeko aurreikuspenik gabe. Horren arrazoi dira musika-jardueraren gero eta konplexutasun tekniko handiagoa, kostu handiak, soinu grabatuaren lehiakortasuna, etab.

- ◆ Musika-ondare barreiatua eta kontserbazio-egoera ezberdinetan: instrumentuak, musika-orroitzapenak eta musika-objektuak zaindu eta hedatzeaz arduratzen den musikaren museoa ez dago, hura kudeatzeko trebakuntzarik gabeko langileak, musika-atalen gabezia nabarmenak liburutegietan, lege-esparru ez oso egokia, etab.

2. JARDUERA-ILDOAK

Helburuak

- Ondasun materialen produkzioan, EA Eren aurreko espezializazioak hutsune garrantzitsua hutsi duela onartzea ondasun kulturalen trebakuntzan, ikerketan, sortzean, produkzioan, hedapenean eta kontsumoan. Beraz, beharrezkoa da galdutako denbora berreskuratzea eta sektore horiekin dagoen zor historikoa kitatzea emaitza adierazgarriak lortzeko.
- Musikako profesionalen trebakuntza integrala espezialitate guztietan –bai interpretaziokoak, bai ikerketako kudeaketa eta hedapenekoak– musikari gurea bezalako gizartean eduki behar duen lekua emango dion abangoardiako talde soziala sortzea lortzeko.
- Norberaren musika-egiturak sustatzea, bai trebakuntzakoak, bai dibulgatzaileak: ikastetxeak, dokumentazio-zentroak, museoak, orkestrak, ganbera-taldeak, koru-taldeak; eta une honetan dauden hutsuneak betetzea helburutzat duten proiektuen sortzea bultzatzea.
- Musikan aritzen diren erakunde guztiei modu berean laguntzea, batzuek besteen ondoan laidotu gabe organigraman dituzten mendekotasun-forma ezberdinengatik.
- Musikaren ezagutza eta aukerak jolas- eta kontsumo-gertaera gisa transmititzea hura asimilatzeko aukerarik izan ez duten belaunaldiei; musika-jardueren hartzaile izan daitezkeen aukera zabaltzeko beharra, eta horretarako, hedapen-programa eta -proiektu espezifikokoak egin beharko dira entzule-kopuru handiagoa erakartzeko. Horrek baldintzatzaile estra artistikoak musika-gertaeratik kentzen lagunduko du, haren gizarteratzea mugatu eta eragozten baitute.
- Musika-kudeaketaren arduradunak profesionalizatzea (arloan publikoan zein pribatuan) erabaki-egiturak finkatzeko eta baliabideak (pertsonalak eta materialak) intrintsekoki garrantzi handiagoa duten proiektuetarantz bideratzeko, helburu zehatzagoekin eta

irismen handiagoarekin, bai arlo materialean, bai arlo kronologikoan edo denbora-arloan.

- Musikaren hedapenean ekimen pribatua sustatzea eta administrazioa modu subsidiarioan aritzea, hau da, interes orokorreko alderdietara eta ekimen pribatua iristen ez den lekuetara iritsi behar du.

1. Koordinazioa - Antolamendua

- Musikaren sektorearentzako koordinazio-organoa sortzea, instituzioen (hainbat sail) eta kulturaren inplikaturako hainbat sektore pribatuen ordezkapenarekin.
- Musikaren sektorearen azterketa sakona egitea adar eta alderdi guztietan, musikaren industriaren eta ekonomiaren ikuspegitik aztertzea musikaren sektoreak euskal ekonomian duen garrantzia.

2. Ondarea eta dokumentazioa

- Kulturaren behatokitik, musikan inplikaturako hainbat sektoreren egoera-azterketa eta beste herrialde batzuetako garapen eta eredu kulturalak sustatzea haien esperientziatik ikasteko eta haien adituekin elkarlanean aritzeko esperientzia horiek EAEko kondizioetara egokitzeko.
- Musikaren Euskal Museoa sortzea jatorrizko aleak gordetzeko eta hedatzeko – Eresbilen ezinbestean ez daudenak– eta musikaren ondare materialak identifikatu eta tratatzeko.
- Aldizkarien, prentsa espezializatuaren, irrati- eta telebista-programen, kritikoen eta abarren katalogoa egitea eta web orrian sartzeko, horietako bakoitzarekin estekatzeko aukera emanez.
- Artisten, taldeen eta abarren irudien fitxategia sortzea. (Bilborock-en fitxategia aprobeztatzea)

- Liburutegi orokorretan musika-atalak hobetzea, eta Hezkuntza Sailarekin koordinatzea liburutegien egoera eta haien langileena musika-ikastetxeetan.
- Liburutegien euskal zerbitzuaren laguntza eskatzea musika-ondarea berreskuratzeko, eta lehendik dagoen dokumentazioa Eresbilen zentralizatzea.
- EAEko liburutegi-sisteman audiotekak sustatzea eta euskal musika CDak sartzea liburuaren erosketak diru-laguntza jasotzeko dituen kondizio berdinetan.

3. Trebakuntza eta ikerketa

- Musikaren produkzio-sektore bakoitzeko eragileei eta trebakuntza, ikerketa eta abarrerako beharrei buruzko azterketa egitea, eta gure "mapan" gaizki irudikatuta agertzen diren musika-lanbideentzako trebakuntza-bideak sortzea sustatzea (Adibidez: bitartekotza kulturala eta ondarearekin lotutakoak (musikologia – Unibertsitatea - Goi-mailako kontserbatorioa) / Musikako kritikoen trebakuntza (Musikene-Unibertsitatea) / Musika-ekoizpena.../ etab.)
- Kontserbatorioko irakasleentzat profilen dekretua berrikustea, kontserbatorioetan musikari hobeak sartzen uzteko.
- Ikastetxe guztietan "erabilera-arauak" sortzea eta ezartzea ikasle eta erabiltzaileek produktu kulturaletarako (partiturak, liburuak, CDak, etab.) duten sarbidea eta egile-eskubideekiko errespetua "bidezko" moduan bateragarri egiteko.
- Musika-jardueren egitea bultzatzea, bai oinarri-finalistako jarduerak (berez dute balioa), bai oinarri prestatzailekoak (musikariak atzerriko auditorioetarako prestatzeko).
- Musika-batxilergoen esperientzia aztertzea interprete berrien eta publiko prestatuaren haztegi gisa.
- Estatuko Hezkuntza Administrazioari presioa egitea Musika Batxilergoaren tituluak Batxilergo Artistikoaren tituluak dituen unibertsitate-ikasketa berdinetarako sarrera emateko gutxienez.

- Musikaren ikerketa modu erabakigarrian sustatzea, hura zentzurik zabalenean hartuta.
- Erregimen orokorreko irakaskuntzak musikaren oinarrizko zikloarekin integratzen dituzten zentroak sortzea.

4. Azpiegiturak

- Euskal Herriko musika-azpiegituren mapa egitea, musika klasikoari, koralaria, erlijiosoari eta pop rockari dagozkionak, baita funtzio aniztuneko ekipamendua ere (frontoiak, kiroldegiak...). Ondorioz, azpiegiturretan Erkidegoan dauden gabezien azterketa egitea, Euskal Herria Europako musika-zirkuitu berrienen barruan egotea eragozten baitu horrek.
- Musika modernoa hedatzeko dauden lokal txikien egoeraren azterketa eta haiei laguntzea, beharrak eta legeria egokitzea.
- Kirol-ekipamenduak edo ikusle-kopuru handia sartzeko ahalmena duten beste ekipamendu-mota batzuk eraikitzean, haiek kontzertuak egiteko erabil daitezkeela kontuan hartzeko arauak ezartzea. Kondizio akustikoak, publikoaren ezaugarriak eta beste xehetasun batzuk planoan erraz konpon daitezke, eta horrek hainbat herriri funtzio aniztuneko ekipamenduak edukitzeko aukera ematen dio.

5. Sorkuntza eta produkzioa

- Musika-sortzearen eta -ekoizpenaren sektorearen erregistro ofiziala sortzea eta haren egoera-azterketa egitea intrusismoa eta lehia desleiala kentzeko, eta erregistro hori web orrian jarrita sustatzea.
- Musika-sortzeari eta -ekoizpenari diru-laguntza ematea.
- Musika-elkarte eta -ekimen amateurrei diru-laguntza ematea haien jarduera egiteko.

- Produktu lehiakorrak (DVD irudiak) sortzeko erraztasunak
- Euskal Herriko musikaren sariak, antzerki, zinema edo literaturako sariak dauden bezalaxe.
- Jabetza intelektuala eta egile-eskubideak (ondareari dagozkionak zein moralak) defendatzea kultura-industriak eta sortzaileak bizirauteko funtsezko elementu gisa. Publiko orokorrari eta musika-hezkuntza eta -kudeaketako profesionalei (irradi telebista, etab.) zuzendutako kontzientziatze-kanpainak, kultura-merkatua egoteko oinarritzeko elementu gisa jabetza intelektualak eta egile-eskubideek duten garrantzi erabakigarria azaltzeko. Pirateria "industrial" eta pribatuari buruzko sentsibilizazio-kanpainak.
- Kaleko pirateriaren aurkako ekintza, horretarako udaltzaingoaren edo ertzaintzaren kontrolak areagotuz.
- Artisten/interpreteen gai inposatzaileak aztertzea. Grabazio fonografikoen BEZa murriztea.
- Telebistan publizitatea egiteko erraztasunak.
- Musikari buruzko sortze literarioa sustatzea euskal musikaren bizitzaren plataforma dibulgatzaile eta kritiko gisa.
- Musika-argitaletxeentzako diru-laguntzak testu alfabetikoko argitaletxeen kondizio berdinetan.
- Mezenasgo Lege eraginkorra martxan jartzea.

6. Musika-kontsumoari buruzko informazioa, sentsibilizazioa eta sustapena

- Komunikabide publikoetan (irratia eta telebista) musika guztiak hedatzeko programak bultzatzea. Herri-musikaren inguruan komunikabideen arreta sortzea, arte plastikoak, antzerkia edo zinemaren arloan egiten den moduan.

- Sail honek babestutako denboraldi eta jaialdietarako sarrera publiko orokorarentzat irekitzeko edo erraztasunak emateko eskatzea haietara ohikoa ez den edo bazkide ez den publikoa joateko.
- Aldizkako argitalpen informatzailea eta dibulgetzailea argitaratzea musika-jarduerak koordinatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egindako musikaren web orria sustatzea, musika guztiak eta inplikaturako sektore guztienak sartzen dituenak, gida aldizkari unibertsala osatuz. Hainbat hizkuntzatan egitea, guztiek erabil dezaten.
- Euskal Herriko Musika Azokaren sortzea sustatzea Durangoko euskal liburu eta diskoaren azokarekin bat ez datorren garaian.
- Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuk, foru-aldundiak, udalak eta erakunde ofizialak inplikatzea haien promozioetan (EAEren barruan eta handik kanpo) euskal musika hainbat alderditan sar dezaten.

7. Musika-programazioa

- Ikuslearen, publikoaren merkatu-azterketa egitea. Musika ezberdinen (klasikoa, herrikoa, rocka) publikoak aztertzea. Programazio gabeziak aurkitzea eta, ondorioz, programa eta zirkuitu berriak sustatzea.
- SAREaren diru-laguntzetan antzerkietan egiten diren musika-ekitaldiak sartzeko. Udal-antzerkietan musika-programazioa jartzeko laguntzak ezartzea.
- Lokal txikiak musika-programazioa sustatzea eta hari laguntzea. Haien artean elkarte-ekintzak sustatzea.
- Sortze musikala sustatzea eta gaurko musika kontzertuen ohiko programazioetan sartzeko.
- Management musikaren sektorea sustatzea.

- Jarduera berritzaileak sustatzea ohiko musika-jardueren aurkezpenean (esaterako orkestrak eta bandak) jadanik sendotuta baina gutxi ustiatuta dagoen giza kapitala eta kapital instituzionala aprobetxatzeko.
- EAerekin muga egiten duten eremuetan gure ikuskizunetako publiko izan daitezkeenak aztertzea. Normalean arretarik ematen ez zaien eremu horietan komunikazio-estrategia diseinatzea.
- EAeko jaialdi, azoka eta gertakari zikliko guztien mapa egitea. Horiek web orrian sartzea jaialdietarako estekekin.
- EAEn egiten diren musika-ekimenen balio erantsia eta positiboa aprobetxatzea (Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak jazz kanpaina egiten du duela urte batzuetatik Getxo, Gasteiz eta Donostiako jaialdietan).
- Euskal musika-jaialdietan diskoetxeen presentzia sustatzea.

8. Kanpoko hedapena

- Euskal musika positiboki sustatzea kanpoan, eta balio berezi eta bereizleetan oinarritzea, esaterako hizkuntza, soinu-ezaugarriak edo ikuskizunen ikusizko alderdiak eta alderdi sozialak. Dibulgazio-politikak sustatzea eta haien profesionalizazioa benetan zaintzea.
- Xede komertzialak dituzten enpresa kulturalak Interneten egoteko laguntzea eta hori sustatzea.
- Hainbat sektoretako azoka espezializatuetan euskal musiken presentzia sustatzea, gaur egun Vic, Cannes eta Womex azoketan egiten den moduan.
- Pop/rocka eta folka sartzten diren Euskal Herriko Musiken kanpainan musika berriak sartzea: musika klasikoa, korala...
- Euskal musika-taldeen kanpoko birak bultzatzea.

- Akordioak beste erkidego batzuekin trukeak ezartzeko arlo guztietako musika-zirkuituetan.
- Akordioak beste herrialde batzuekin musikariak trukatzeko. EAEn dauden jaialdiek trukerako guneak edukitzeko aukera ematen dute.

3. LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ILDOAK

1. Jabetza intelektualak eta egile-eskubideak (ondareari dagozkionak zein moralak) defendatzea kultura-industriak eta sortzaileak bizirauteko funtsezko elementu gisa. Publiko orokorrari eta musika-hezkuntza eta -kudeaketako profesionalari (irradi telebista, etab.) zuzendutako kontzientziatze-kanpainak, kultura-merkatua egoteko oinarrizko elementu gisa jabetza intelektualak eta egile-eskubideek duten garrantzi erabakigarria azaltzeko. Pirateria "industrial" eta pribatuari buruzko sentsibilizazio-kanpainak.
2. Musikaren sektorearentzako koordinazio-organoa sortzea, instituzioen (hainbat sail) eta kulturari inplikaturako hainbat sektore pribatuen ordezkapenarekin.
3. Euskal Herriko musika-azpiegituren mapa egitea, musika klasikoari, korolari, erlijiosoari eta pop rockari dagozkionak, baita funtzio aniztuneko ekipamendua ere (frontoiak, kiroldegia...). Ondorioz, azpiegiturretan Erkidegoan dauden gabezien azterketa egitea, Euskal Herria Europako musika-zirkuitu berrien barruan egotea eragozten baitu horrek.
4. Musikaren sektorearen azterketa sakona egitea adar eta alderdi guztietan, musikaren industriaren eta ekonomiaren ikuspegitik aztertzea musikaren sektoreak euskal ekonomian duen garrantzia.
5. Ikuslearen, publikoaren merkatu-azterketa egitea. Musika ezberdinen (klasikoa, herrikoa, rocka) publikoak aztertzea. Programazio gabeziak aurkitzea eta, ondorioz, programa eta zirkuitu berriak sustatzea.
6. Euskal musika positiboki sustatzea kanpoan, eta balio berezi eta bereizleetan oinarritzea, esaterako hizkuntza, soinu-ezaugarriak edo ikuskizunen ikusizko alderdiak eta alderdi sozialak. Dibulgazio-politikak sustatzea eta haien profesionalizazioa benetan zaintzea.
7. Musika-argitaletxeentzako diru-laguntzak testu alfabetikoko argitaletxeen kondizio berdinetan.

8. Kulturaren behatokitik, musikan inplikaturako hainbat sektoreren egoera-azterketa eta beste herrialde batzuetako garapen eta eredu kulturalak sustatzea haien esperientziatik ikasteko eta haien adituekin elkarlanean aritzeko esperientzia horiek EAEko kondizioetara egokitzeko.
9. Musikaren produkzioaren sektore guztietako eragileei eta trebakugntza, ikerketa eta abarretako beharrei buruzko azterketak egitea, eta gure "mapan" gaizki irudikatuta dauden musika-lanbideentzat trebakuntza-bideak sortzea: bitartekotza kulturala eta ondarearekin lotutakoak (Musikologia - Unibertsitatea - Goi-mailako kontserbatorioa), musikako kritikoen trebakuntza (Musikene - Unibertsitatea), ekoizpen musikala, etab.
10. Mezenasgo Lege eraginkorra martxan jartzea.
11. Lokal txikietako musika-programazioa sustatzea eta hari laguntzea. Haien artean elkartzeko ekintzak sustatzea.
12. Komunikabide publikoetan (irratia eta telebista) musika guztiak hedatzeko programak bultzatzea. Herri-musikaren inguruan komunikabideen arreta sortzea, arte plastikoak, antzerkia edo zinemaren arloan egiten den moduan.
13. SAREAren diru-laguntzetan antzerkietan egiten diren musika-ekitaldiak sartzeko. Udal-antzerkietan musika-programazioa sartzeko laguntzak ezartzea.